Badugu AUKERA
Euskal eskola publiko komunitarioa iruten

# Info

## LAN BERDINA, SOLDATA BERDINA

### *Hezitzaileen artean ezberdintasunik ez!!!*

Astelehenean , hilak 18, Lan Hitzarmen mahaia deitua izan zen, gaiordenean azken berriez gain, 2 urteko hezitzaileen lan sariari zegokion puntua zegoen.

Hezkuntza sailak, 2 urteko gelen kontzertazioa gauzatuko du ikasturte honetan, hortaz, bertan diharduten langileak ordainketa eskuordetuaren bidez jasoko dute soldata.

Hezkuntza sailak argitaratu dituen kontzertazioa tauletan, 2 urteko geletan dauden hezitzaileek jasoko duten soldata, egun Ikastoletako Lansari Tauletan duguna baino altuagoa da.

Egoera honen aurrean, Ikastolen Elkartea-Partaidek eta EIBk aldebakarrez erabaki dute, soldatan dagoen ezberdintasun hori plus modura jasotzea (Taula hurrengo orrialdean).

**“Titulazio bera eta funtzio berdinak dituzten hezitzaileen artean, desberdintasunik ez”**

LAB sindikatutik, argi adierazi genuen mahaian, kategoria honetan langileek bizi dituzten lan baldintzak kontutan izanda, edozein hobekuntza ongi etorria bada ere, ezin dela soilik hezitzaile batzuengan aplikatu eta besteengan ordea ez.

LAB sindikatuarentzat, ez da inola ere ulergarria ezta onargarria, titulazio bera eta funtzio berdinak dituzten langileen artean horrelako ezberdintasunak egotea. Ikastolen Elkartea-Partaideri eta EIBri , 0 ,1 eta 2 urteko hezitzaileei soldata bera aplikatzea eskatu genien.

Bukatzeko, Lan Hitzarmen berriaren negoziaketaren inguruan, mahaira edukiak ekarri eta langileok behar dugun Hitzarmen berri bat lortzeko gure eskaera luzatu genuen.


| | |
|---|---|
| Ikastolakgipuzkoa@lab.eus | 666779156 |
| ikastolakgipuzkoa1@lab.eus | 666775746 |
| ikastolakbizkaia@lab.eus | 674137953 |
| ikastolakbizkaia1@lab.eus | 674137908 |
| ikastolakaraba@lab.eus | 666774912 |
| ikastolaknafarroa@lab.eus | 679146404 |


>irakaskuntza LAB

| | 2023 LANSARI-TAULA (01-08) | | | | 2023 LANSARI-TAULA (09-12) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | HILEKOA | | URTEKOA | | HILEKOA | | | URTEKOA | | |
| | O.Soldata | Aintzin. | O.Soldata | Aintzin. | O.Soldata | Plusa | Aintzin. | O.Soldata | Plusa | Aintzin. |
| **I. TALDE PROFESIONALA.- Irakasleak** | | | | | | | | | | |
| **A) ZUZENEKO IRAKASLEAK** | | | | | | | | | | |
| **HAUR HEZKUNTZA 1. ZIKLOA** | | | | | | | | | | |
| Irakaslea | 2.557,77 | 47,29 | 35.808,82 | 662,08 | 2.557,77 | | 47,29 | 35.808,82 | | 662,08 |
| Hezitzailea | 1.860,21 | 39,57 | 26.042,89 | 553,99 | 1.860,21 | | 39,57 | 26.042,89 | | 553,99 |
| Hezitzailea 2 urteko gela | 1.860,21 | 39,57 | 26.042,89 | 553,99 | 1.860,21 | 196,45 | 40,47 | 26.042,89 | 2.750,30 | 566,58 |
| **HAUR HEZKUNTZA 2. ZIKLOA eta LEHEN HEZKUTNZA** | | | | | | | | | | |
| Irakaslea | 2.557,77 | 47,29 | 35.808,82 | 662,08 | 2.557,77 | | 47,29 | 35.808,82 | | 662,08 |
| **DBH LEHEN ZIKLOA** | | | | | | | | | | |
| Irakaslea A (HH+LH Tituluduna)* (Aldi Baterako Xedapena) **2021/09/01etik +%33,33 ekiparazioa** | 2.878,57 | 47,29 | 40.299,94 | 662,08 | 2.961,03 | | 47,29 | 41.454,41 | | 662,08 |
| Irakaslea B (Lizentziatua) | 2.961,03 | 59,40 | 41.454,41 | 831,67 | 2.961,03 | | 59,40 | 41.454,41 | | 831,67 |
| **DBH BIGARREN ZIKLOA eta IRAKASKUNTZA ERTAINAK** | | | | | | | | | | |
| Irakaslea | 2.961,03 | 59,40 | 41.454,41 | 831,67 | 2.961,03 | | 59,40 | 41.454,41 | | 831,67 |
| **B) IRAKASLE TEKNIKOAK:** Psikologoa, Orientatzailea | 2.961,03 | 59,40 | 41.454,41 | 831,67 | 2.961,03 | | 59,40 | 41.454,41 | | 831,67 |
| **C) IRAKASKUNTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUETAKOAK** | | | | | | | | | | |
| Jarduera osagarrietako langilea | 1.766,05 | 39,57 | 24.724,72 | 553,99 | 1.766,05 | | 39,57 | 24.724,72 | | 553,99 |
| Hezkuntza Laguntza Espezialista | 1.945,19 | 39,57 | 27.232,60 | 553,99 | 1.945,19 | | 39,57 | 27.232,60 | | 553,99 |
| **II. TALDE PROFESIONALA- Administrariak** | | | | | | | | | | |
| Administrari-burua | 2.312,48 | 49,53 | 32.374,70 | 693,41 | 2.312,48 | | 49,53 | 32.374,70 | | 693,41 |
| Ofizial administraria | 2.052,62 | 44,61 | 28.736,62 | 624,59 | 2.052,62 | | 44,61 | 28.736,62 | | 624,59 |
| IKT Mantenu Teknikaria | 2.052,62 | 44,61 | 28.736,62 | 624,59 | 2.052,62 | | 44,61 | 28.736,62 | | 624,59 |
| Administrari laguntzailea | 1.775,63 | 39,71 | 24.858,80 | 556,00 | 1.775,63 | | 39,71 | 24.858,80 | | 556,00 |
| **III. TALDE PROFESIONALA.- Zerbitzu Orokorretako Langileak** | | | | | | | | | | |
| Sukaldari-burua | 2.312,48 | 49,53 | 32.374,70 | 693,41 | 2.312,48 | | 49,53 | 32.374,70 | | 693,41 |
| Sukaldaria | 1.696,71 | 44,77 | 23.753,98 | 626,75 | 1.696,71 | | 44,77 | 23.753,98 | | 626,75 |
| Etxezaina (Aldi Baterako Xedapena) | 1.995,20 | 44,77 | 27.932,76 | 626,75 | 1.995,20 | | 44,77 | 27.932,76 | | 626,75 |
| Mantenuko Arduraduna | 1.690,87 | 39,58 | 23.672,25 | 554,09 | 1.690,87 | | 39,58 | 23.672,25 | | 554,09 |
| Atezaina | 1.625,05 | 39,71 | 22.750,77 | 556,00 | 1.625,05 | | 39,71 | 22.750,77 | | 556,00 |
| Jangelako langilea | 1.604,86 | 39,71 | 22.467,97 | 556,00 | 1.604,86 | | 39,71 | 22.467,97 | | 556,00 |
| Garbiketako langilea | 1.604,86 | 39,71 | 22.467,97 | 556,00 | 1.604,86 | | 39,71 | 22.467,97 | | 556,00 |
| Garraioko langilea | 1.604,86 | 39,71 | 22.467,97 | 556,00 | 1.604,86 | | 39,71 | 22.467,97 | | 556,00 |

Ikastolakgipuzkoa@lab.eus 666779156
ikastolakgipuzkoa1@lab.eus 666775746
ikastolakbizkaia@lab.eus 674137953
ikastolakbizkaia1@lab.eus 674137908
ikastolakaraba@lab.eus 666774912
ikastolaknafarroa@lab.eus 679146404

>irakaskuntza LAB